

PELLO ZUBIRIA

Etxera bidean galdu diren erleen misterioa

Europako eta Ipar Amerikako erlezain asko ikaratuta dago: neguazkena iritsi eta erlauntza askotan erlea falta da. Hilotzik ezean ere ziur dakite hil egin direla. Baina nork akabatu ditu? Eta hiltzaileak berriro atakatuko al du? Erlezainez gain, nekazariak ere larritzen hasi dira.

ERLEAK DESAGERTZEN ARI DIRA, erlezainak arriskuan utzirik. Hori ipini du bere kroniketako baten tituluan *The New York Times* egunkariak. Urte sasoi honetan erleak informazio izatea ez da harritzeko, prentsa guztian egiten da aipamen gozoren bat, erleak esnatzen diren sasoiak delako. Ontsalaz, AEBetako egunkari famatuak zientzia orrietan aipatu behar zuen gaia –erleen jokabideaz edo dantza famatuaz aurkikuntza berriren bat dela eta– edo agian medikuntzako albisteen artean, eztiari edo propoliari aurkitu zaien bertute berriren bat kontatzeko. Baina *New York Timeseko* Alexei Barrionuevok erlezainen urte hasiera mikatz honen alderdi ekonomikoa azpimarratu du.

Honela idatzi du Barrionuevok: “David Bradshawk kontatu ezin ahala eztenkada jaso ditu bere erlezain bizi-tzan, baina oraindik shock handiena hartu zuen joan den hilabetean erlauntzak ireki eta bere 100 milioi erleen erdiak falta zituela ohartu zenean. AEBetako 24 estatutan tanke-berako muturrekoak hartu dituzte erlezainek, erleak kopuru beldurgarri-riari eta esplikaziorik gabeko modu batean desagertu zaizkienean. Honek erlezainen bizimoduaz gain arriskuan jarri ditu uzta asko, tartean Kalifornia-ko almendrak, AEBetan etekin handiena uzten dutenak”.

Erlea den xomorro apal horrek herritarren eguneroko otorduan duen

garrantzia lehen baino argiago geratuko da galera masibo honekin. Beti galdu dira erleak, gaitzen batek suntsituta, edo gosegatik, edo negu gogorra ezin jasanik. Baina krisi honek duen gauza berria zera da: erleak desagertu egiten direla. Badirudi joan egin direla eta berriro etxeraten asmatu ez.

Mundu osoko erlezainen artean asko aipatzen den eta orain *The New York Timesen* orrietaraino iritsi den arazo honi “Colony Collapse Disorder” deitu diote, batzuek Erlauntza Hutsen Sindromea ere bataiatu dutena. Euskal Herrikoak bezalako erlategi txikiez ari garenean –hemen 100 erlauntzatik gora dituztenak ez dira asko– erle berriak bilatzeak tamaina jakineko buruhaustea dakar. Baina AEBetan bezala ehunka eta milaka erlauntza manejatzen dituzten erle-maisuek mundu osoan aztarrika ari dira kolonia berriak nondik lortuko.

Ikerketa batzuen arabera, AEBetako laboreetan urtean 14.000 milioi dolarreko balioa duten fruitu, ale eta hazia polinizatzen dituzte erleek. Herritarrek jaten duten guztiaren heren batean sartu dute beren muturra xomorrook. Nekazaritza industrializatuari estu lotuta, erlezain handiek beren kofoinak trailer handietan mugitzen dituzte alde batetik bestera, landare eta arbolen loraldien atzetik.

Eztia egiteak ez du etekinik profesional amerikarrentzako, Txinatik eta

Argazki honek “Erlezaina egunsentian” darama izenburu, eta Azuqueca de Henaresko (Madril, Espainia) argazki lehiaketan hirugarren saria irabazi zuen. Gizona bere erletxeko kofoini gainbegirada ematen ageri da, eskuan kaxetako batetik ateratako abaraska edo orrazea daukala. Udaberriaren esnatzearekin batera egiten diete erleei lehen bisita erlezainek, negua nola pasa duten eta sasoi berriari zer nolako gorputzaldiz ekin dioten ikusteko. Aurten denetan dira kexu ohi baino askoz erle gehiago galdu dutelako. Honek erlezainez eta nekazarienez gain herritar guztiak kezkatu behar ditu, zeren eta Varroa izurritea iritsi zenez geroztik erle basati guztiak hil eta gure artean diren erle bakarrak erlezainek behatzen dituztenak baitira. Harrigarria badirudi ere, azken asteotan publikatu da hiri barruko erlauntzek galera gutxiago jasan dituztela landa eremuetakoek baino.

Argentinatik askoz merkeago inportatzen baitu agroindustriak. Nekazari txikiak bezala, erlategi txikiak asko urritu dira urteotan. Azken bi hamarkadotan, kofoinak laurden batean gutxitu dira eta erlezainak berriz lehengoan erdiak dira. Geratu diren handi askok, ezti alde batera laga eta beren xomorroak laborariei loraldi garaian alokatzetik ateratzen dute negozioa, polinizatortik.

Orain denak, bai erle lilizaleen aiduru dauden nekazariak eta bai erlezainak, estu dabilta, erleen galeragatik. Mendebaldeko kostaldean kolonien %30-60 galdu da negu honetan, eta Ekialdekoan berriz –Texas inguruan batik batik– galerak %70eraino iritsi dira. Aurreko urteetan neguan %20 hiltzea normaltzat jotzen omen zen, baina oraingo kopuruok ezin jasanezkoak dira. Milioika amandaondo, kiwi eta aguakateondoren loreak antzu gera litezke aurten.

Botikarioa da susmagarria

Barrionuevo kazetariak kontatu du joan den otsailean Floridan bildu zirela 15 erlezain handi ikerlari talde batekin halako *brainstorming* bat egiteko, erleen galeraren erruduna aurkitu eta horri aurre egin nahian. Adituek hipotesi bat baino gehiago daukate.

Batzuek garrantzia handia ematen diote erleen estresari. Honek eragin handia izan dezake AEBetako beza-lako erlezaintza ia-industrializatu



batean, non erleak batetik bestera baitaramatzate kamioiz, loretan diren uzten bila. Estresak abere horien immunitate sistema ahulduko zukeen.

Beste batzuek erreparatzen diete erlauntzetan diren izurriek, xomorroi batez ere, eta nabarmenki Varroari. Hauen kontra erlezainek erabiltzen dituzten botikengatik erreginak ahuldu egin omen dira: beren arrautzetatik lehen baino eme-langile gutxiago ateratzen dituzte, eta gainera lehengo aldean denbora erdian bizitzen dira ereginak, pare bat urte. Erlemaisuek ez dituzte beren lan metodoak egokitu baldintza berrietara oraindik.

Beste arrazoi bat bioaniztasunaren gutxitzea da. Erlezain amerikarrak oso lotu zaizkionez labore bakarreko soro erraldoien polinizazioari, erleak horietan ez du aurkitzen behar dituen elika-

gai guztiak. Profesionalek garesti ordainduz osatu behar dute xomorroen erregimena kofoinetan arto-ziropa, sakarosa, eta beste ipiniz. Paradoxa bat aipatzeko, laborari batzuek erleak behar dituzte derrigor eta aldiz beste batzuek debekatzen dituzte, hazirik gabeko laranjak ekoizten dituztenek adibidez. Nola uztartu biak eta bioaniztasuna?

*New York Times*eko kazetariari ahaztu zaizkio European askok salatzen dituzten susmagarriak: nekazaritza industrialeko gai kimikoak. Gure etxetik hurbil, berrikitan Galiziako egunkariak zabaldu dute bertako erlezainek salatu dutela agrokimikoek erletxeen hustutzean eragin nabarmena daukatela. Galiziako Erlezaintza Elkarteak plazaratzen duen *Apicultura Galega* buletin elektronikoan Jesus Asorey-k esplikatu du 10 urtetan erle-

galera sufritu eta ikertu ondoren ikasi dutena.

Asorey izen eta abizenek salatu ditu errudunak: Basf eta Bayerrek nekazarietara xomorroak akabatzen saltzen dizkieten imidacloprid eta fipronil direlakoak, Gaucho, Regent, Confidor eta Escocet markekin saltzen dituztenak. Landareak lurretik hartzen ditu pestizida horiek eta bere izerdiarekin hosto eta loretaraino eramaten, hiru urteko iraupenez. Produktuok xomorroen –tartean erleen– nerbio sisteman eragiten dute, orientazio ahalmena galaratzen diete eta immunitate sistema ere ahultzen diete.

Nikotinaren eratorriak diren botika horiek salatu zituzten Frantziako erlezainek eta lortu ere lortu zuten epaile batek horien komertzializazioa debekatzea; hori bai, eguzki-lore eta arto soroetan baino ez. Espainian oraindik oso gutxi eztabaidatu da gaiak. Areago, Galiziako eukalipto basoak –*Gonipterus Scutellatus* edo eukaliptoaren gorgorioa akabatzen– beste nikotinoide bat erabili dute fumigatze lanetan. Hori ere salatu dute erlezain galegoek. Badaezpada ere, Basf korporazioak hurrengo belaunaldiko nikotinoide berria prest daukala iragarri du, xomorro guztiak erleak salbu akabatu omen dituen botika “adimentsua”.

Ingurumenaren egoera ondo islatzen duen termometroa dela erlea esan izan da. Adituek orain arte erlea bera eta bere produktuak analizatzen zituzten ingurumenaren kutsadura neurtzeko. Orain hutsa ikertu behar dute, falta. Orientazioan maisu omen diren erle famatuek ezta bildu ondoren etxera itzultzen ez dute-eta asmatzen. n

<http://www.argia.com/nethurbil> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.

gure!
arteak
euskaraz

